

Ingeniaritzarako Oinarrizko Gainazalak



00 Irudia. Bilboko Ingeniaritza Eskolako II.eraikineko eskilara zentralak. Egileen argazkia, 2018.

Gainazalen adierazpenaren inguruko testa

Argibideak

Jarraian aurkezturiko galderaei, erantzun anitzeko aukeraketa eskeintzen zaio, emaitza zuzena bakarra izanik.

Erantzunak, dokumentu honen bukaeran aurkituko dituzue.

2. GAINAZALEN ADIERAZPENAREN TESTA

Ondorengo baieztapenetatik, adierazi zein esaldi den zuzena edo egokia:

1. Gainazalen adierazpenak:

- a. Kanpo ertzen proiektzioen bidez adierazten dira.
- b. Kotarik goreneko inguru edo ingeraden proiektzioen bidez adierazten dira.
- c. Itxurazko ingeradaren eta ertzen proiektzioen bitartez adierazten dira.
- d. Ikusten diren atalak bakarrik adierazten dira.

2. Gainazalen adierazpenean, itxurazko ingerada:




- a. Gainazalarekiko elkartut diren uhin edo izpien kontaktu puntuak elkartuz aurkitzen da, proiektzio bakoitzean.
- b. Gainazalarekiko ukitzaile diren uhin edo izpien kontaktu puntuak elkartuz aurkitzen da, proiektzio bakoitzean.
- c. Gainazalarekiko paralelo diren uhin edo izpien kontaktu puntuak elkartuz aurkitzen da, espazioan.
- d. Gainazalarekiko zehar diren uhin edo izpien kontaktu puntuak elkartuz aurkitzen da, espazioan.

3. Bista bakoitzeko bisualizazioari dagokionez eta proiektzio planoekiko distantziak kontuan hartuz:

- a. Agerikoa edo ikusgai izango da: Plano horizontalean kota handieneko elementuak eta plano bertikalean urrunera gutxienekoak.
- b. Agerikoa edo ikusgai izango da: Plano horizontalean kota gutxieneko elementuak eta plano bertikalean urrunera gutxienekoak.
- c. Agerikoa edo ikusgai izango da: Plano horizontalean kota gutxieneko elementuak eta plano bertikalean urrunera gehienekoak.
- d. Agerikoa edo ikusgai izango da: Plano horizontalean kota gehieneko elementuak eta plano bertikalean urrunera gehienekoak.





4. Bista bakoitzeko bisualizazioari dagokionez, eta ikuslearen edo behatzailearen kokapena kontuan izanik:
- Agerikoa edo ikusgai izango da: plano horizontalean gorago dauden elementuak, eta plano bertikalean, ikuslearekiko hurbilen daudenak.
 - Agerikoa edo ikusgai izango da: plano horizontalean beherago dauden elementuak, eta plano bertikalean, ikuslearekiko hurbilen daudenak.
 - Agerikoa edo ikusgai izango da: plano horizontalean gorago dauden elementuak, eta plano bertikalean, ikuslearekiko urrunen daudenak.
 - Agerikoa edo ikusgai izango da: plano horizontalean beherago dauden elementuak, eta plano bertikalean, ikuslearekiko urrunen daudenak.
5. Piramide baten adierazpenean, ikusten ez den hizkutuko puntu batean:
- hizkutuko edo ageriko ertzak elkartu daitezke, proiektzioaren arabera.
 - hizkutuko ertzak elkartuko dira, lur lerrotik goragoko kota batean badago.
 - hizkutuko ertzak elkartuko dira, lur lerrotik beheragoko kota batean badago.
 - beti hizkutuko ertzak edo ez agerikoak elkartuko dira.
6. Kono zeihar baten adierazpenean:
- Itxurazko ingerada oinarriarekiko ukitzaile izango da.
 - Itxurazko ingerada zehazten duten sortzaileak aurrez aurrekoak izango dira beti.
 - Itxurazko ingeradako sortzaileak egiazko magnitudean daude.
 - Sortzaileak proiektaturiko oinarriaren zentruan ebakitzen dira.
7. Prisma zeihar baten adierazpenean:
- Bi oinarriek ertz paraleloak dituzte.
 - Bi oinarriak antzekotasun arauen bitartez erlazionatzen dira, baina ez dute tamaina bera izango, prisma zeiharra izateagatik.
 - Bi oinarriek proiektzioetan angelu aldakor bat osatuko dute euren artean, ikuspuntuaren arabera.
 - Bi oinarriak modu zeiharrean proiektatuko dira.

8. Jarraian aurkezturiko piezaren oinarritzko gainazalen bidezko deskonposaketan ondorengoa ikus daiteke:







- a. Ezin da oinarritzko gainazaletan deskonposatu.
- b. Piramidea eta konoa ez daude pieza honetan adieraziak.
- c. Aurpegidun gainazalak dira guztiak, kurbadun gainazalik ez dago.
- d. Aurpegidun naiz gainazal kurbadunak ikusten dira.

9. Konoaren adierazpen zuzena aukeratu ezazu:

a.	b.
	
c.	d.
	

10. Altxaerako puntu gorriaren adierazpen egokirako dauden aukerak jasotzen dituen irudia aukeratu ezazu:

a. 	b. 
c. 	d. 

Gainazalen adierazpenaren inguruko testaren emaitzak

1c, 2b, 3d, 4a, 5d, 6a, 7a, 8d, 9d, 10c

